

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. 2018KO ABENDUA

## 2018. urtean bidaiari-sarrerak %4,4 gehitu dira eta gaualdiak %7,2

### **Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %7,0 gehitu dira 2018ko abenduan**

2018. urtean bidaiari-sarrerak %4,4 gehitu dira eta gaualdiak %7,2, Eustaten datuen arabera, aurreko urtearen aldean; guztira 3.071.130 sarrera izan dira 2018an, aurreko urtean baino 130.637 gehiago.

2018ko abenduan, 203.662 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 10.155 gehiago, %5,2ko gehikuntza. Hiru lurraldeetan gehitu dira sarrerak: %8,1 Gipuzkoan, %4,6 Bizkaian eta %0,6 Araban.

Bestalde, gaualdiak, 2018ko abenduan Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 381.581 izan dira, aurreko urtekoan baino 25.014 gehiago, %7,0 gehiago. Gaualdiak ere urte arteko bilakaera positiboa eduki dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %7,9 igo dira; Araban, %6,7; Bizkaian, %6,4.

#### **Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Abendua**

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)				Gelatiiko Errentagarritasuna	
	2018/12	m/m-12 (%)	2018/12	m/m-12 (%)	2018/12	2017/12	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)	RevPar (eurotan)
							2018/12	p.p.*	2018/12	p.p.*		
<b>EUSKAL AE</b>	<b>381.581</b>	<b>7,0</b>	<b>203.662</b>	<b>5,2</b>	<b>1,87</b>	<b>1,84</b>	<b>44,5</b>	<b>2,1</b>	<b>51,9</b>	<b>2,2</b>	<b>75,5</b>	<b>39,2</b>
Estatukoak	273.065	6,5	146.388	5,0	1,87	1,84	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	108.516	8,4	57.274	6,0	1,89	1,85	-	-	-	-	-	-
<b>ARABA/ÁLAVA</b>	<b>53.803</b>	<b>6,7</b>	<b>29.056</b>	<b>0,6</b>	<b>1,85</b>	<b>1,75</b>	<b>41,6</b>	<b>2,7</b>	<b>49,4</b>	<b>2,8</b>	<b>64,8</b>	<b>32,0</b>
Estatukoak	44.599	8,1	23.990	3,3	1,86	1,78	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	9.204	0,7	5.066	-10,3	1,82	1,62	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	41.299	9,4	21.660	1,1	1,91	1,76	44,0	2,7	53,6	2,9	56,9	30,5
<b>BIZKAIA</b>	<b>189.591</b>	<b>6,4</b>	<b>100.643</b>	<b>4,6</b>	<b>1,88</b>	<b>1,85</b>	<b>46,6</b>	<b>2,6</b>	<b>53,9</b>	<b>1,4</b>	<b>72,9</b>	<b>39,3</b>
Estatukoak	137.544	5,6	74.887	4,7	1,84	1,82	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	52.047	8,6	25.756	4,3	2,02	1,94	-	-	-	-	-	-
Bilbao	126.408	4,2	67.666	5,5	1,87	1,89	51,9	1,4	59,2	0,1	78,7	46,6
<b>GIPUZKOA</b>	<b>138.187</b>	<b>7,9</b>	<b>73.963</b>	<b>8,1</b>	<b>1,87</b>	<b>1,87</b>	<b>42,9</b>	<b>1,3</b>	<b>50,3</b>	<b>3,0</b>	<b>83,4</b>	<b>41,9</b>
Estatukoak	90.922	7,0	47.511	6,3	1,91	1,90	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	47.265	9,9	26.452	11,7	1,79	1,82	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	86.297	11,7	47.256	14,2	1,83	1,87	47,5	1,5	53,0	1,4	101,4	53,8


p.p.\*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea  
Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta

Estatuko bidaiariak %5,0 gehitu dira Euskal AEn aurreko urteko abenduaren aldean eta atzeritarrak %6,0. Araban erregistratu da Estatutik etorritako bidaiarien igoera bat %3,3koa eta atzeritarrak etorritakoen beherakada bat %10,3koa. Bizkaian Estatukoak %4,7 gehitu dira, eta atzeritarrak %4,3. Gipuzkoan Estatutik etorritakoak %6,3 igo dira eta atzeritarrak %11,7.

Batez besteko egonaldia, abenduan, 1,87 eguneko izan zen, 2017koan 1,84koa zelarik. Araban lehengo urteko 1,75 egunetik aurtengo abenduko 1,85 egunera luzatu da; Bizkaian 1,85etik 1,88ra luzatu da; Gipuzkoan, aldiz, aurreko urteko abenduko balioak mantendu dira, 1,87 eguneko egonaldia batez beste.

Plazakako betetze-maila ehuneko 2,1 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2017ko abenduko %42,3tik 2018ko abenduko %44,5era. Araban ehuneko 2,7 puntuz gehitu da, 2017ko abenduko %39,0tik %41,6ra. Bizkaian ehuneko 2,6 puntuz gehitu da, 2017ko abenduko %44tik 2018ko %46,6ra. Gipuzkoan ehuneko 1,3 puntuz gehitu da, 2017ko abenduko %41,6tik 2018ko abenduko %42,9ra.

**Euskal Aeko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizearen urte-artereko aldakuntza-tasa. (%)**  
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Uneko prezioak



Gelakako betetze-mailak ere eboluzio positiboa eduki du Euskal AE osorako, zeren ehuneko 2,2 puntuz gehitu baita, %51,9ra. Araban ehuneko 2,8 puntuz gehitu, %49,4ra; Bizkaian 1,4z, %53,9ra; Gipuzkoan 3,0ez, %50,3ra.

Hotel-okupaziorik handiena plazaka abenduan Bilbon izan da (%51,9), ondoren Donostian (%47,5) eta Gasteizen (%44,0).

Asteko eguna aintzat, Euskal AEn 2018ko abenduan okupaziorik handiena (%56,4) aste-bukaeretan gertatu da; %39,5 lanegunetan.

**Sektorearen errentagarritasun-adierazleez**, eguneko batez besteko tarifa (ADR) 75,5 eurokoa izan da 2018ko abenduan Euskal Aeko hoteletan, aurreko urtean baino %1,9 gehiago. 64,8 eurokoa izan da Araban, %0,8ko jaitsierarekin; 72,9 eurokoa Bizkaian, %1,7ko igoerarekin; eta 83,4 eurokoa Gipuzkoan, %2,6ko igoerarekin.

Gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar), zeinak okupazioaren arabera diren, 39,2 eurokoa izan dira Euskal AEn 2018ko abenduan, 2017koan baino %6,5 gehiago. Araban 32,0 eurokoa; Bizkaian, 39,3koa; Gipuzkoan, 41,9koa.

**Gelakako betetze-maila Euskal Aeko hotel-establezimenduetan Sortzez Garbiaren zubian, %65,9**

Euskal AEn, 2018ko Sortzez Garbiaren zubian (abendua 5etik 8ra, lau egun), 35.995 sarrera eta 72.495 gaualdi izan ziren; plazakako betetze-maila, %61,5, eta gelakakoa, %65,9. Araban 5.230 sarrera eta 10.738 gaualdi izan ziren aipatu lau egunetan; plazakako betetze-maila, %61,4, eta gelakakoa, %66,0. Bizkaian 16.980 sarrera eta 34.027 gaualdi izan ziren; plazakako betetze-maila, %62,3, eta gelakakoa, %66,9. Gipuzkoan 13.785 sarrera eta 27.730 gaualdi erregistratu ziren; plazakako betetze-maila, %60,7, eta gelakakoa, %64,6.

### **Hotel-establezimenduetako 2018ko balantzea: 3.000.000 bidaiariak gainditu dira**

2018an 3.071.130 bidaiari-sarrera izan dira, aurreko urtean baino %4,4, 130.637, gehiago. Bidaiari-sarrerak %7,1 igo dira Gipuzkoan, %3,5 Bizkaian eta %0,8 Araban.

2018ko gaualdiak, 6.040.523; aurreko urtean baino %7,2, 404.811, gehiago. Gaualdiak %4,4 dira gehitu Araban, %6,1 Bizkaian eta %9,5 Gipuzkoan.

Bidaiarien batez besteko egonaldia 2017ko 1,92 egunetik 2018ko 1,97ra luzatu da Euskal AE osorik hartuta; plazakako betetze-maila, %56,8 Euskal AE osorako, ehuneko 2,6 puntuz igo da.

**Sektorearen errentagarritasun adierazleez**, eguneko batez besteko tarifa (ADR) 90,5 eurokoa izan da Euskal AEko hoteletan 2018an, aurreko urtean baino %6,2 gehiago. 71,7 eurokoa izan da Araban, %0,9ko gehikuntza; 83,5 eurokoa Bizkaian, %9,7ko igoera; 105,8 eurokoa Gipuzkoan, %3,6ko gehikuntza.

Gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar), zeinak okupazioaren arabera diren, 61,1 eurokoa izan dira Euskal AEn 2018an, 2017an baino %9,6 gehiago. Araban 44,4 euro; Bizkaian 57,7; Gipuzkoan 71,7.

### **Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018**

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze maila (%)				Rentabilidad por Habitación	
	2018	2018/2017 (%)	2018	2018/2017 (%)	2018	2017	Plazakako		Logelako		ADR (euros)	RevPar (euros)
							2018	p.p.*	2018	p.p.*		
<b>EUSKAL AE</b>	<b>6.040.523</b>	<b>7,2</b>	<b>3.071.130</b>	<b>4,4</b>	<b>1,97</b>	<b>1,92</b>	<b>56,8</b>	<b>2,6</b>	<b>67,5</b>	<b>2,1</b>	<b>90,5</b>	<b>61,1</b>
ARABA/ÁLAVA	792.338	4,4	431.035	0,8	1,84	1,78	51,2	2,4	62,0	3,3	71,7	44,4
BIZKAIA	2.857.810	6,1	1.463.341	3,5	1,95	1,90	57,0	2,4	69,0	1,0	83,5	57,7
GIPUZKOA	2.390.375	9,5	1.176.754	7,1	2,03	1,99	58,7	2,9	67,8	2,9	105,8	71,7

p.p.\* = aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

### **Landa-ostatueta sarrerak %3,4 gehitu dira, baina gaualdiak %1,5 jaitsi dira abenduan**

Euskal AEko landa-ostatueta 11.670 bidaiari-sarrera erregistratu dira, aurreko urteko hil beraren aldean %3,4 gehiago. Lurraldeka, Araban %23,2 jaitsi da sarrera-kopurua eta Gipuzkoan %4,0ko jaitsiera gertatu da, baina Bizkaian %42,9ko gehikuntza izan da.

Izan dira 1.089 atzerritar-sarrera, zeina den %118,2ko hazkundera aurreko urtekoen aldean, eta sarrera guztien %9,3 da hori. Estatuko bidaiarien sarrerak %1,9 gutxitu dira, beste alde.

Euskal AEko landa-establezimenduetan abenduan 28.272 gaualdi erregistratu dira, aurreko urteko hil beraren aldean %1,5 gutxiago. Lurraldeka, Araban %13,2 jaitsi dira eta Gipuzkoan %11,8, baina Bizkaian %28,3 igo dira.

Plazakako betetze-maila, %23,3, ehuneko 0,4 puntu gutxiago 2017ko abenduan baino. Araban ehuneko 3,6 puntu gutxiago, %18,3ra. Bizkaian betetze-maila, %26,9, ehuneko 5,7 puntu gehiago 2017ko abenduaren aldean, eta Gipuzkoan ehuneko 2,6 puntu gutxiago, %23,5era.

Azkenik, bidaiariko batez besteko egonaldia laburtu da abenduan, duela urtebeteko 2,54 egunetik aurtengo 2,42ra.

### Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Abendua

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2018/12	m/m-12 (%)	2018/12	m/m-12 (%)	2018/12	2017/12	2018/12	p.p.*
<b>EUSKAL AE</b>	<b>28.272</b>	<b>-1,5</b>	<b>11.670</b>	<b>3,4</b>	<b>2,42</b>	<b>2,54</b>	<b>23,3</b>	<b>-0,4</b>
Araba/Álava	5.264	-13,2	2.262	-23,2	2,33	2,06	18,3	-3,6
Bizkaia	9.742	28,3	4.268	42,9	2,28	2,54	26,9	5,7
Gipuzkoa	13.266	-11,8	5.140	-4,0	2,58	2,81	23,5	-2,6

p.p.\*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

**Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta**

### Landa-ostatueta urteko balantzea 2018an: bidaiari-sarrerak %7,2 gehitu dira eta gaualdiak %9,0

Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan 172.486 bidaiari-sarrera izan dira 2018an, aurreko urtean baino %7,2 gehiago. Gaualdiak 450.172 izan dira, 2017an baino %9,0 gehiago.

Arabian %5,6 gutxitu dira sarrerok, baina Bizkaian %14,4 igo dira eta Gipuzkoan %8,2. Gaualdiak ere jaitsi dira Araban, %1,3, bainan Bizkaian %16,9 igo dira eta Gipuzkoan %8,0.

Bidaiariko batez besteko egonaldia 2017ko 2,57 egunetik 2018ko 2,61era luzatu da. Plazakako betetze-maila 2018an, %29,5, ehuneko 2,2 puntuz gehitu da.

### Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze maila (%)			
	2018	2018/2017 (%)	2018	2018/2017 (%)	2018	2017	Plazakako		Logelako	
							2018	p.p.*	2018	p.p.*
<b>EUSKAL AE</b>	<b>450.172</b>	<b>9,0</b>	<b>172.486</b>	<b>7,2</b>	<b>2,61</b>	<b>2,57</b>	<b>29,5</b>	<b>2,2</b>	<b>32,4</b>	<b>3,6</b>
ARABA/ÁLAVA	68.560	-1,3	30.294	-5,6	2,26	2,16	20,4	-0,7	22,56	0,7
BIZKAIA	138.956	16,9	53.380	14,4	2,60	2,55	29,7	3,5	32,76	4,6
GIPUZKOA	242.656	8,0	88.812	8,2	2,73	2,74	33,7	2,7	37,01	4,4

p.p.\*= aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

**Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta**

**Informazio gehiagorako:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62*